

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

5176

138/2022 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, zeinaren bidez gaitzen baitira 578.947,36 euroko kredituak 3123 Programan (Gizarte Zerbitzuak), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2022. urterako aurrekontuko 9211 Programan (Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak lortu baitira.

Lankidetzeta-esparru orokorra eta autonomia-erkidegoetarako eta hiri autonomoetarako Estatuko Aurrekontu Orokorretan esleitutako kredituak banatzeko irizpideak onartzen dituen Erabakia betez, 578.947,36 euroko diru-sarrera bat jaso da Trantsizio Sozialerako eta Erronka Demografikorako Ministeriotik. Kreditu horien xedea da lurralde-eraldaketa ahalbidetzen duten proiektu bereziak bultzatzea eta babestea, despopulazioaren lehengoratzearan eraginez.

Kreditu horien xedea da Añana eta/edo Arabako Mendialdeko helize laukoitzaren proiektua egitea. Proiektu horren barruan honako hauek sartzen dira: zaintza sozial eta sanitarioen tokiko ekosistema bat abian jartzea; landa-ingurunean (Araba osoan) telelaguntza aurreratua garatzea; adineko pertsonekin dinamizatzaile digitalaren figura garatzea, komunikazioa errazteko eta oinarritzko online zerbitzuak eskuratzeko; eta landa-etxebizitzetan belaunaldien arteko cohousingaren proiektu pilotua egitea.

Proiektuaren sustatzailea Arabako Foru Aldundia izango dela kontuan hartuta, Gizarte Politike-tako Sailburuordetzak erabaki du zuzeneko dirulaguntza bat ematea eta Trantsizio Sozialerako eta Erronka Demografikorako Ministeriotik datozen kredituak transferitzea.

Horregatik, kreditu horiek gaitzen dira 2022ko ekitaldiko aurrekontuan, bat etorritik maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 82. eta 83. artikuluetan ezarritakoarekin

Horrenbestez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politike-tako sailburuak eta Ekonomia eta Ogasun sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko azaroaren 15ean egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2022ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan kredituen habilitazio bat onartzea, honako gastu-egoera honi dagokionean:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
3123	420,00	578.947,36

2022ko azaroaren 28a, astelehena

Diru-sarrereren egoera-orri honetan kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortzen dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	430,00	578.947,36

Funtsak Arabako Foru Aldundiari zuzeneko dirulaguntza emateko erabiliko dira, «Añanako eta/edo Arabako Mendialdeko helize laukoitzaren proiektua» gauzatzeko

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.